

ITSASU ITXASSOU

BULLETIN MUNICIPAL 3 OCTOBRE 2021 /3. HERRI ALDIZKARIA 2021 URRIA



Itsasuko Herriko bestek, Errobiko-k eta merkatuek alaitu dute uda hits hori. Elkarteak abiatzen ari jo ta ke. Eta Balaki trinketa itsasuar guziena dugu.

Fêtes, festival et marchés ont réchauffé un été plutôt morose. Les associations repartent tambour battant. Et le trinquet Balaki devient équipement communal.

ÉDITO

Auzapezaren hitza



Ausartzia apur bat aintzina joateko

Beste aldi guziet bezala, hautatu dugu zuentzat eta zuekin muntatzea herri aldizkari hau. Ez gira kazetariak, are gutiago grafiztak. Idaztea eta muntatzea etxeko etxeko eginak dira. Izan zaitzete beraz irakurle kurios eta barkaberak.

2021 urteko hirugarren herri aldizkari hau eskuratu duzuenan, kausituko dituzue argibide frango Itsasuko Herriko Etxearen eta herriaren biziaz.

Herriko elkarte guziet eskaini zaie aldizkari huntan idazteko parada. Lehen orrietan agertu ditugu ihardetsi daukuten ekarpenak. Herriko Etxeko batzordeen lanek ere merezi dute denen ganik ezagutuak izatea. PLU hirigintza gogoeten aintzinapenak bere lekua behar du. Aipamen berezia Balaki trinketari herriaz erosteari, eta ondotik abiatu diren berritzapen eta zabaltze xedeeri.

Joan berri zaigu uda bitxi bat. Urte luze bat osasun neurri zorrotz eta tinkaldi jasanik, Errobiko Festibala lehenik eta herriko besta komitea ondotik lehiatu dira betiko besten antolatzen. Buru eginez duda eta ez bai guziet, ausartu dira sinesten eta guk preziatu dugu. Udako merkatuak eta gainerateko elkarte ekintza guziak berriz abiatu dira apurka apurka. Gure herriak ari bizi zozialaren zaporea berriz eskuratzen.

Aurtengo udazkenak baluke udaberri baten itxura, zuhaitzetako hostoekin batean erortzen balire maskak, eta haizeek eraman balitzate osasun ageriak eta gainerateko zozial neurri urruntzaileak. Bainan ahanzi gabe gutartean dauden ahulenak, haien gorputz eta gogoen osasunak nahitaez behar baititugu erreferentzia eta lehentasun. Halaere uste dugu etorkizuna ausartzia doi bat dutenei zabalik dagola.

Mizel HIRIBARREN
Itsasuko auzapeza

Rien n'avance sans oser

Comme les fois précédentes, nous avons choisi de fabriquer pour vous et avec vous ce bulletin.

Nous ne sommes ni journalistes ni graphistes. Rédaction et mise en page sont des productions maison. Seule l'impression a été confiée à des professionnels. Soyez donc des lecteurs curieux et indulgents.

Vous recevrez ce troisième bulletin municipal de l'année 2021 et vous trouverez cette fois encore beaucoup d'informations qui concernent l'activité de la Commune et la vie du village d'Itsasu

Toutes les associations du village ont été invitées à contribuer à cette édition. Nous avons accordé les premières pages à celles qui ont répondu. Les travaux des commissions municipales méritent également d'être connues de tous. L'avancée de la révision du PLU n'est pas en reste. Une mention particulière pour l'acquisition du trinquet Balaki par la Commune, et l'engagement prochain dans la rénovation et les possibles extensions.

Un drôle d'été vient de s'en aller. Après une longue année de mesures sanitaires et de restrictions, Errobiko Festibala d'abord et le comité des fêtes ensuite ont organisé les festivités habituelles. Bravant les doutes et les incertitudes, ils ont osé y croire et nous avons apprécié. Les marchés nocturnes et autres animations d'associations ont pu reprendre progressivement. Notre village retrouve goût à la vie sociale.

L'automne pourrait cette année ressembler à un printemps, pour peu qu'avec les feuilles mortes tombent également les masques, et que les vents emportent passe sanitaire et autres mesures de distanciation sociale. Sans toutefois oublier les plus vulnérables parmi nous, leur santé physique et morale s'impose comme la référence et la priorité. Mais croyons que l'avenir appartient à ceux qui osent.

Mizel HIRIBARREN
Maire d'Itsassou

Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Itsassou
05 59 29 75 36 - Email : accueil@itxassou.fr
Site : www.itxassou.fr

Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea
Impression sur papier recyclé : Imprimerie Arizmendi

Auzapezaren hitza / Le mot du Maire

ELKARTE BIZIA / VIE ASSOCIATIVE Présentation d'associations / Elkarteen aurkezpenak	4-15
SOZIALA / SOCIAL Les actions et initiatives du CCAS / LSHZko ekintza eta ekimenak Enfance familles / Haur eta familiak Enfance jeunesse / Haur eta gazteria Sénior / Adinetakoentzat Budget / Buxeta Mission locale Avenir Jeune / Gazteen etorkizunaz arduratzen	16-17-18
HIRIGINTZA / URBANISME PLU PPRI Instauration d'un périmètre d'étude « La Nive-Irigoibeherea » / Ikerketa eremua Irigoibeherean Commandes groupées panneaux photovoltaïques / Iguzki panelak elgarrekin erosteko Réunion PLU avec les agriculteurs / PLUren bilkura laboriarekin Résultats enquête agricole / Inkestaren emaitzak	19-23
BIDEAK / VOIRIE Analyse des flux de voitures à Ataitze / Udan Ataitzeko autoen kudeaketaren berri Voirie communale / Herriko bideak	24-25
HAURTZAROA / ENFANCE Centre de Loisirs UDALEKU Aisialdi zentroa	26
HERRITAREN PARTE HARTZEA / DEMOCRATIE PARTICIPATIVE Zuen hitzak entzunak / La parole des itsasuar est entendue Elkarteen artean / En inter associatif	27-28
HERRIKO BIZIA / VIE COMMUNALE	28
EUSKARA Hizkuntza menperatuen aldeko xarta / Charte européenne des langues minoritaires	29
KULTURA / CULTURE	30
EGUTEGIA / AGENDA	31
LEKUKOTASUNA / TEMOIGNAGE	32

l'organisation des fêtes d'Ixassou

Après une année d'absence, les fêtes d'Ixassou ont fait leur retour cette année. Les restrictions concernant le covid ont laissé place à un grand nombre de débats quant au déroulement des fêtes du village. Grâce au soutien de la mairie, à l'entraide des associations du village et à la bienveillance des villageois, le comité a pu prendre toutes les dispositions nécessaires au profit de ces 5 jours de fête.



nous voulons leur dire Bravo !

En effet, après un an d'absence et un nouveau bureau, il nous tenait à cœur de proposer des animations hétérogènes, pour faire plaisir à toutes les générations.

Cette année, *femin'hitza*, l'association féministe d'Ixassou, a organisé le *poteo* chez Boroï. Un travail de prévention a été fait auprès du comité. En effet, l'association a fourni aux jeunes du comité des rubans violets, pour permettre aux potentielles victimes d'agression de repérer des figures de soutien.

A 19h, nous nous sommes tous dirigés vers la mairie, pour écouter les discours de la mairie, et des nouveaux présidents du comité. Puis, les concerts et le bal se sont déroulés à Atharri, dans la joie et la bonne humeur.

Le dimanche après-midi, nous avons eu la chance d'avoir pu offrir aux villageois des animations qualitatives et intergénérationnelles, comme le spectacle de danse SORTAZ-SORTA.

Malgré la volonté du comité, la journée du lundi n'a pas eu lieu au Pas de Roland. Nous avons quand même organisé le tournoi de mus, pendant que l'association *Indianoenia* tenait le bar toute la journée.

Nous étions contents de pouvoir faire le mardi au fronton. Pour l'occasion, le comité n'a pas tenu de bar et a laissé travailler les restaurants du fronton.

La journée a été animée par des parties de pelote, de la danse basque ainsi que par un DJ pour la fin de soirée. Puis, le mercredi, a eu lieu le traditionnel *méchoui*.

Chaque année, il donne l'occasion à toutes les générations de se mélanger, et de continuer la fête en allant danser au bal à Elizaldia.

Pour tous les jours, nous nous sommes mis d'accord avec GOXOKI pour l'organisation, grâce aux entretiens que nous faisons régulièrement entre les deux associations.

Le comité voudrait remercier l'ensemble des associations d'Ixassou, la mairie, ainsi que toutes les personnes sans qui les fêtes n'auraient pas pu voir le jour.

Le comité des fêtes Menditarrak d'Itsasu mérite qu'on revienne sur la belle aventure de l'organisation des fêtes 2021. Cinq jours de festivités que beaucoup d'itsasuar ont appréciés, dans un contexte sanitaire d'incertitude absolue.

C'est la tradition locale qui impose qu'à Itsasu les jeunes se relaient très rapidement aux manettes du comité des fêtes. Cette formidable école de formation sur le tas à l'organisation d'événements veut que filles et garçons s'y impliquent à partir de 16 ou 17ans et quittent le navire aux alentours de 25 ou 26 ans.

Imaginer donc cette jeunesse montante, à peine investie dans la vie professionnelle ou encore étudiante, qui plonge en même temps avec insouciance dans les années de fêtes joyeuses et qui se retrouve à gérer collectivement l'animation des fêtes locales sur la semaine d'après quinze août.

Les jeunes engagés dans le comité Menditarrak ont eux même témoigné des débats internes pour offrir aux villageois un menu quasi complet des fêtes patronales ou réduire à minima la proposition sous prétexte de pandémie.

Nous devons leur dire bravo et chapeau, pour le sérieux avec lequel ils ont assuré la longue préparation et la mise en œuvre de ces fêtes 2021. Ils retiendront entre tous les signes de succès, l'affluence du samedi soir à Atharri et l'envie de se retrouver et de danser au *méchoui* du mercredi soir.

2021 Itsasuko besten antolaketa

Alabainan, urte bateko desagerpenaren ondotik eta bulego berria osaturik, gogokoa ginuen proposamen ainitza eskaintzea, belaunaldi guzieren atseginerako.

Aurten, femin'hitza, Itsasuko elkarte feministak antolatu du besta larunbatez poteoa Borroi ostatuan. Prebentzio lan bat egingo da besta komitean. Femin'hitza elkarteak hornitu ditu xingola ubelak komiteko gazteei, eraso mehatxurik izanen zen orduak arduradunak deituak izan zitezten.

Larunbat iluntzean, denak Herriko Etxerat hurbildu dira, hautetsiaren hitzaldia entzuteko eta komiteko lehendakari berrienak. Ondotik, kontzertuak eta dantzaldia Atharrin iragan dira, alaitasun eta trenpu hobereanean.

Igande aratsaldean, herritarrek gozatu ahal izan dituzte kalitezko ikustaldiak, belaunaldi guzietan egokiak, Sortaz Sorta dantza ikusgarria bezalaxe.

Komiteak nahiko zuen bezala, astelehenero ekitaldiak ez dira Latsen iragan. Egin ahal izan da hala ere mus lehiaketa, Indianonia elkarteak ostatu egiten zuelarik egun osoan.

Plazer izan dugu besta asteartea gaineko plazan antolatzea. Egundik hortan komiteak ez du ostaturik altxatu, eta plazakoei utzi die eskua. Pilota partidek, euskal dantzek airostu dute astearteko egun hori, eta DJ batek gaualdia.

Asteazkenean, Atharrin izan da zikiro arrakastatsua. Urtero belaunaldi guzieren nahasteko parada izaten da zikiroa, eta ondotik bestak segitzen du dantzaldiarekin Elizaldeko plazan.

Besta egun bakotx, komiteko gazteak adostu gira Goxokikoekin antolaketa finkatzeko, bi elkarten artean egin ditugun solasaldiei esker.

Besta komiteak nahi ditu eskertu Itsasuko elkarte guziaz, Herriko Etxea, eta baitzepadako laguntza ekartzen duten herritar guziaz, haien ekarpena gabe bestarik ez bailiteke.

tombola Itsasuko bestak 2021

Le tirage de la bourse des fêtes d'Itsasu a eu lieu à l'occasion du méchoui.

Le 1^{er} lot, un bon d'une valeur de 300 € à valoir auprès de l'agence « Oihana Voyages », a été remporté par Oihanna LALANNE.

Les lots suivants, tenant en grande partie en « bons pour repas » offerts par les restaurants du village et autres « bons cadeau », ont trouvé gagnants pour une quinzaine d'entre eux sur la commune.

Urte bat hutsegini, aurten 2021ean berriz jin zaizkigu herriko bestak. Covid gaitzaren itzuliko legezko hertsialdiek lekua utzi dute hainbat eztabaidari herriko beste buruz. Herriko Etxeari esker, elkarten laguntzari esker, eta herritarren borondate onari esker, besta komiteak hartu ditu bost egun bestaren antolatzeko neurri guziaz

txalotu nahi ditugu !

Itsasuko Menditarrak besta komitekoek merezi dute gorets dezagun 2021eko herriko besten antolaketa. Bost egun besta herritar askok preziatu dituzte, ibili badira edo ez badira bestatzaile, osasun giro ezkorren erditik.

Itsasuko ohidurak den bezalakoak dira : gazte taldea usu berritzen da besta komitearen arduetan sartzeko. 16- 17 urtetarik aintzina, neska ala mutiko, gertatzen dira besta antolakuntzaren lehian, eginez ikasten dutela, eta 25-26 urteetan lekua ondokoei utzi behar dutela.

Mirets dezagun beraz hazten ari den gazteria hori, batzutan ikasle tunante edo lan munduan sartu berria, murgitzen dena heze hezea biziko besta garai laxoenean, eta ordu berean herriko besten ardura kolektiboa kudeatu behar duena agorrileko bigarren hamabostaldian.

Berek aitortu dute Menditarrak elkarteko kideek barne eztabaidak izan dituztela erabakitze gutieneko besta motzak antolatuko zituzten ala besta egitarau eder bat eskaintzen zuten, pandemiak pandemia.

Zor diotegu txalo asko eta txapel eder bat, ikusi baititugu antolakuntza luzean serio engaiatzen eta 2021 herriko besta arrakastatsuen emaitza hor baita.

Beste hainbeste keinu baikorren artean, gogora ditezela Atharrin larunbat gauez bildu eta loriatu duten gazteriaz, eta asteazken gauez eskaini duten zikiro alaiak, afal artean zelaia dantzaz betetzen zelarik.

itsas'rock

Les styles de danse enseignés à Itsas'rock sont variés : le mercredi soir, avec Leyla, nous proposons des cours de danses de salon et en ligne de 19h45 à 20h45 puis, avec Michel, place est faite à la bachata, de 20h45 à 21h45 et à la salsa, de 21h45 à 22h45.

Le vendredi soir, Michel accueille les débutants de rock de 19h à 20h et Lindy hop de 20h à 20h45 ainsi que les danseurs plus chevronnés (Rock avancé de 20h45 à 21h45 et Lindy hop avancé de 21h45 à 22h30).

De plus, des soirées de pratique sont organisées régulièrement le vendredi. Après le cours de rock débutant, novices et confirmés se rencontrent et ces derniers encouragent les premiers !

Tout cela se fait à la salle Sanoki.


Pour le Bureau d'Itsas'Rock :

Patricia Haran, présidente, et Catherine Beyrie, secrétaire.

Dantza molde ezberdinak erakasten dira Itsas'Rock en : asteazken aratsetan, Leylarekin, saloi dantzak proposatzen ditugu, eta internetez 19.45etarik 20.45etarat. Ondotik, Michel-ekin, bachata dantzak 20.45 etarik 21.45 etarat, eta handik harat saltsa dantza 21.45tik 22.45 etarat

Ostirale iluntzez, Michel-ek hasiberriak hartzen ditu Rock dantza ikasteko 19etarik 20 etarat, eta Lindy hop dantza 20 etarik 20.45 arte. Rock dantzari trebeak aldiz 20.45etarik 21.45 etarat ; Lindy hop dantzari trebeak 21.45etarik 22.30arte.

Gainera, praktika gaualdiak antolatuak dira jarraituki, ostiralez, hasiberrien rock ikastalditik landa, hasiberriek eta trebeagoek elgar ezagut dezaten eta azken hauek lehen haik motiba ditzaten. Hori guzia Sanoki gelako lehen solairuan iragaiten da. Hauxe bulego berria : Patricia Haran lehendakari eta Catherine Beyrie idazkari.



xapata

Comme chaque année l'association de producteurs de cerises d'Ixassou va commercialiser des plants de variétés locales de cerisiers d'Ixassou (de 1an et demi) à racines nues greffées sur porte-greffe Maxma 14.



Disponibles en décembre 2021. Retrait à Ixassou uniquement. 3 variétés disponibles : PELOA (précoce, noire en fin de maturité), XAPATA (peau rose orangée, chair blanche, légèrement acidulée) et BELTXA (noire tardive). Nous conseillons de choisir au moins 2 variétés différentes car elles ne sont pas auto fertiles.

Plus d'info sur le site : cerise-itxassou.com

Prix unitaire pour les agriculteurs à l'association Xapata 15 euros.

Prix pour les particuliers non-agriculteurs 20 euros

Urte guziz bezala, Xapata elkarteak salduko ditu Itsasuko gerezi ondoak.

3 mota hautagai : Peloa, Xapata eta Beltxa, hiruak « Maxma 14 » delakoan xertatuak..

Helduden abendoan banatuak izanen dira.

Prezioa 20 euro (15 laborarientzat, kideztza hartuz)

**réservez dès maintenant
pour être sûrs d'être servis**

par mail à : contact@cerise-itxassou.com
en indiquant vos noms, adresse, mail et numéros de
téléphone (portable si possible)

**lehen bait lehen manatu behar
dira landareak, eskuratzeko
berme bakarra da**

Emaillez : contact@cerise-itxassou.com adieraziz izen
deiturak, posta norabidea, emaila eta telefona (ahalaz
mugikor zenbakia)

karaté Goku Ryu

Le Karaté Goju Ryu et le Daruma Taïso sont deux pratiques distinctes même si elles sont complémentaires.

Le Karaté Goju Ryu est très différent du Karaté sportif qui est plus connu. Il s'agit de l'Art martial originaire d'Okinawa. L'art du combat est travaillé dans sa totalité et donc toutes les parties du corps sont utilisées et toutes les techniques, debout et au sol. Ce karaté n'est donc pas compétitif. Nous travaillons ensemble, l'évolution est lente mais se fait tout au long de la pratique. L'accent est porté sur la posture, l'encrage, les détails techniques, la respiration... Chacun évolue à son rythme. Le Karaté peut être pratiqué par tous et toutes, bien entendu, dès l'âge de 6 ans.

Le Daruma Taïso, lui, est réservé aux personnes de plus de 15 ans. Cette gymnastique chinoise laisse de côté l'aspect combat bien que certaines techniques d'auto défense soient occasionnellement enseignées.

La pratique se concentre sur l'entretien du corps, là aussi de manière globale : assouplissements, posture, équilibres, respiration, renforcement musculaire, travail énergétique, relaxation... Le Daruma Taïso a pour origines le Do-in, le Chiqong, la Yoga...

Si vous souhaitez essayer une de ces pratiques, contactez Mélanie au 06 73 22 50 17. Vous pouvez consulter le site karategojuryu.org



Karate berezia da karate goku ryu. Okinawatik jina den arte martziala da.

Gudu karatea bere orokorrean lantzen da, eta beraz gorputzaren parte guziak jokoan sartzen dira, zutikako eta etzanikako teknika guziak bezala.....

Daruma Taïso aldiz ez da gudu gimnastika bat, nahiz auto defentsarako erabilia izan daitekeen noizean behin.

Gorputz osoa lanean ezartzen du Daruma Taïso ere...

Karate goku ryu ala daruma taïso entseatu nahi dituenak Melanie deitu dezake 06 73 22 50 17

erle beltza

A peine l'année apicole se termine que nous préparons la suite. Pour la prochaine rentrée nous proposerons comme chaque année à la vente des essaims d'abeilles noires ainsi que des reines.

Face aux succès des formations nous renouvellerons les cours d'initiation à l'apiculture sur notre rucher à Itxassou.

A raison d'une après midi par mois, de mars à octobre, les personnes découvrent l'apiculture au fil des mois.

Nous vendons aussi la production de miel produite à notre rucher au centre du village.

N'hésitez pas à nous rejoindre et partager avec nous l'effort pour la sauvegarde de l'abeille et la défense de la biodiversité.

erlebeltza@laposte.net

Urte bat jin eta ondokoari begia. Helduden urtean salgai aterako ditugu erle beltz arrazako erlekumeak

Formakuntzak ere eskainiko dira, arrakasta handia izan baitute, martxotik urrirat, hilabetez hilabete urtaroen harirat.

Etor gurekin elgarrekin eraman ditzagun erle beltzaren garapena eta bioaniztasunaren zaintzea

erlebeltza@laposte.net



club des ainés Idekia



Le 2 septembre 2021, nous partons 49 joyeux « lurons » Pour l'Auvergne, jusqu'à Issoire. Voici en quelques flashes, notre histoire.

*Dans la Chaîne des Puys,
Une « cinéscénie »
Nous amène au pays
Des Arvernes. Bien assis,
Nous allons éprouver
De fortes sensations:
La lave en fusion
Jaillit brusquement
D'un volcan,
Et sur nous...est projetée!
Mais sains et saufs, nous
sortons,
De cette expédition!
Pour ensuite sillonner
les entrailles de la terre,
En petit train, pépères,
Où les bombes volcaniques
Peuvent être ramassées,
Sans danger!
Au site de Lemptegy,
Ce n'est pas interdit,
Car l'exploitation
De cette carrière de lave durcie
Est maintenant remplacée
Par l'exploration
Pour touristes intéressés,
De ce site fantastique.
Notre chère guide Héléna
N'a pas ménagé ses pas,
Malgré son genou blessé
Elle nous a accompagnés,
Nous a tout raconté
Sur l'histoire de la terre,
Ses volcans et ses mystères.
Mais aussi tout sur son pays
Où elle est née et où elle vit.
Avec elle, on a appris
Un peu le langage du pays,*

*Les « couzes » sont des cours
d'eau,
Les « paillats », des murets en
pierre,
Les carrières d'arkose dorée,
Roches sédimentaires
De la famille des grès,
Les dykes sont des buttes,
Culots d'anciennes cheminées
volcaniques,
Les « maars », des lacs d'origine
volcanique...*

*L'achat d'un chemisier,
Au Puy en Velay
A valu un défilé
De mode improvisé,
Les spectateurs ont bien ri.
Pour la dentelle du Puys,
Affichage gratuit...
Mais savez-vous
Que la Petite Vierge Noire
Dans la cathédrale, on peut la
voir,
Avec Jésus sur les genoux
Et son long et large manteau,
La Petite Vierge a un maillot
En dentelle du Puys!*

*Quant à la lentille verte,
Elle vous est offerte
De différentes façons,
En rémoulades, en infusions,
En confitures cuites au
chaudron,
En sac en toile,
En boîte de métal...*

**2021eko buruilaren 02an,
abiatzen gira
49 neska-putiko alai
Auverñara buruz,
Issoireraino.
Huna hemen, flash guti
batzuetan, gure historia.**

*Puys-etako mendilerroan,
"Gau-ikusizunak"
Arvernesetako lurraldera
Garamatza. Ongi jarririk,
Sentipen gogorak
Biziko ditugu:
Laba galdan
Bat-batean jauzten da
Sumendi batetik,
Eta gure gainera...
proiektatzen!
Baina sano eta sendo
ateratzen gira
Espedizio huntarik!
Ondotik lurraren erraiak
Zeharkatzen ditugu,
Tren ttipi batean, lasai,
Non bonba bolkanikoak
Bil daitezkeen,
Arriskurik gabe!
Lemptegyko gunean,
Ez dago debekatua,
Zeren laba gogortuzko
harrobiaren
Uztiapena
Ordezkatua du orain
Leku zoragarri hauetaz
interesatuak diren turisten
Uztiapena.
Helena gure gidari maiteak
Ez zituen bere urratsak
gupidetsi,
Belauna zauritua izanik ere
Gurekin etorri zen.
Dena kondatu dauku
Lurraren historiari buruz,
Sumendi eta misterioak barne.
Baita sortu den eta bizi den*

*bere herrialdeari buruzko
guzia ere.
Berarekin ikasi dugu
Pixka bat tokiko hizkuntza,
"Couzes"ak erreka dira,
"Paillats"ak, harrizko
paretatxoak,
Arkosi urreztatuzko harrobiak,
Arroka sedimentarioak
Hareharri familiakoak,
Dykes-ak pentokak dira,
Sumendi-ximineak zaharrek
zolak,
"Maars"ak, sumendi jatorriko
aintzirak...*

*Mantar baten erosketa,
Puys en Velay-en
Ezusteke moda
Desfilea bihurtu da,
Ikusleek untsa irri egin baitute.
Puys-eko dentelarentzat
Dohainikako iragarkia...
Baina ba ote dakizue
Ama Birjina Beltza ttipia
Katedralean ikus daitekeela
Jesus belaunen gainean duela
Bere beroki luze eta zabala
soinean,
Ama Birjina Ttipiak Puys-eko
Dentelaz eginiko azpi-jantzia
darama!*

*Dilista berdeari dagokionez,
Oparitua zaitzue
Molde desberdinetan,
Erremuladetan, infusioetan,
Pertzean egosi konfituretan,
Oihalezko poltsan,
Metalezko kutxatilan...*



L'association Itsasuarrak avec ses sections différentes gère le complexe Atharri qui regroupe le mur à gauche, la salle Gaztetxea, le local Ataitze alloué à la danse basque, le bel équipement de cuisine, et le terrain qui accueille bien des manifestations.

Nous savons que la danse basque pour les enfants connaît cette année un regain de succès, mais dans ce bulletin c'est l'école de pelote qui nous renvoie les échos du championnat intercommunal de ce début d'été.

Un tournoi de tête à tête en mur à gauche a été organisé pour les plus jeunes pilotari de Kanbo- Espelette et Itsasu sur plusieurs fins de semaines du début d'été, qui s'est conclu par les finales du 4 juillet 2021 à Atharri. Tous les parents concernés et les jeunes participants ont beaucoup apprécié l'esprit de cette sympathique compétition intercommunale qui renvoie davantage au plaisir du jeu de pelote qu'à l'objectif exclusif d'émergence de champions.



Itsasuarrak elkarteak, bere animazio sail desberdin guzietan, kudeatzen ditu Atharriko pilota lekua, Gaztetxea gela, Ataitze euskal dantza gela, sukalde nasaiak eta besta zelai ederra. Badakigu haurrentako dantza ikastaldien arrakasta berriz pizten ari direla, baina aldizkari hontan pilota elkarteak haur eta gazteekin antolatu duen txapelketa dugu aipagai.

Uda hastapenean antolatu dute Itsasu, Ezpeleta eta Kanboko pilota eskolek elgarrekin gaztetxoei idekia zen Ezker paretako zoiinghiagoka bat. Hiru herrietarik bakotzak badu bere pilota eskola : Napurrak Ezpeletakotz, Kanboarrak Kanbokotz eta Itsasuarrak gure herrikotz. Xan Parachu-k eta bere lagunek eremaiten badute Itsasuko pilota eskolaren ardura, Francis Carricart da arduratzen Ezpeletakoaz eta Iban Hiriart Urruty Kanbokoaz.

Buruz buruko lehiak izan dira lau astez hiru herrietako haurrak elkartu eta jostatu dituen txapelketa. Helburua ez zen baitezpada pilotari hobereenen agerian ezartzea, baizik eta gehiago gaztetxo guzien plazerraren sustatzea pilotaren itzulian, eta lehiatu diren guzien goztea nor bere gogo eta indarrarekin.

Hiru herrietako pilotarien burrasoek ere gozatu dute bereziki Atharriko finalen egunaldia, 2021ko uztailaren 04an.

2021eko udan, plaza laxoko lehiaketek ere pilota partida ederrak erakutsi dituzte Itsasuko gazteekin, batzuek galdu eta bestek irabaziz :

- Union Basque txapelketan, gaztetan nagusitu dira Antton Daguerre Larraburu eta Lukian Richepin
- Helduetan nagusitu dira Lucas Fourmeaux eta Anthony Aguerre
- Arteko mailan euskal herriko txapelkun ateratu dira Iban Saldumbide eta Estebe Parachu. Aldiz galtzale Frantziako txapelketan.
- Arteko maila (nesketan) Euskal Herriko txapelgoko finalean Laura Saldumbide eta Joana Lapeyre

Balaki appartient à tous les itsasuar

Le trinquet Balaki est désormais propriété de la Commune d'Itsasu depuis le 8 octobre 2021, date de la signature de l'acte définitif de vente par la SCI Neys à la mairie d'Itsasu.

Des travaux d'étanchéité s'imposent pour éviter que la structure ne se dégrade davantage ; quant aux niveaux de reprise de la structure béton, des sols et de la couverture, les diagnostics sont en cours.

Les premières rencontres avec les acteurs d'Itsasu directement concernés par la pelote ont révélé la nécessité de mettre le trinquet aux normes de la FFPB (Fédération Française de Pelote Basque) :

- S'agissant de la kantxa, ses dimensions correspondent globalement à ces normes. En effet il est dit que « Balaki » fut construit sur le modèle du « Trinquet Moderne » de Baiona.
- Reste à pouvoir retirer facilement le tambour arrière pour permettre notamment la pratique du jeu à baline, et à rehausser les murs latéraux sur les premiers mètres,

S'agissant des choix à porter sur la construction potentielle d'équipements annexes sur le site, diverses consultations citoyennes ont été lancées (voir article page 27)

Les données collectées vont être compilées et traitées avec le concours du bureau d'études « Apitropik ». Cette agence spécialisée a été retenue par le Conseil Municipal pour accompagner la collectivité dans la définition des annexes qui pourraient être implantées sur l'immédiate proximité du trinquet Balaki.



Itsasuar guziena da Balaki

Itsasuko herriarena da Balaki trinketa. 2021eko urriaren 8an izenpetua izan da jabetze ageria, SCI Neys eta Herriko Etxearen artekoa.

Udazken ondar hontan euri uretarik gerizatzeko gutieneko obrak egin behar litezke, murrutik ez ditezen gehiago andea.

Itsasun pilotaz arduratzen diren elkarten ordezkarietarako lehen solasek agertzen dute trinketak Frantziako Pilota Federazioneko araudietan ezarria izan behar duela.

- Kantxaren neurriak norma horietarik aski hurbil daude, Baionako Moderne trinketaren izaritan eraikia izan omen baitzen Balaki.
- Gelditzen da gibeletako taularen errexki kendu ezartzea, baline jokoan aritzeko gisan, eta kantxa bazterreko murrutik gorrako altzatzua, besteak beste.

Aldiz, pilota lekuari gehitu behar litezkeen emendakinetan asmatzeko, gogoeta molde bat baino gehiago proposatua izan da. Itsasuar guziek ukan dute beren etxetan galdeketa bati erantzuteko parada. Hogoita hamar bat erantzun itzuli dira Plan Guide ibilaldien uztaren osagailu. Batzuek emaitza horik landuko dituzte Apitropik agentziak, herriko kontseiluak deliberatu baitu agentzia hunen laguntza ordaintzea argitzeko nola antolatzen ahal den Balakiko eremu hori.



les vieux machins

Après cette période difficile, l'association des Vieux Machins, s'est remise au boulot dès cet été en organisant 5 marchés nocturnes dont le succès fut inespéré. Les Itsasuar ont répondu présents à ces cinq soirées de joie et de partage.

Pour les fêtes du village, nous étions présents avec nos vieilles guimbardes, nous avons été rejoints par le club d'Hasparren « Auto-Moto-Rétro ».

Le 17 octobre a eu lieu le rallye annuel avec un périple sur nos routes, clôturé par un repas. Pour la fête au piment, nous sommes encore sollicités pour le transport des visiteurs depuis Cambo-les-bains et les campings environnants. Le 14 novembre, notre Bric à brac sera organisé sur les hauteurs d'Atharri au mur à gauche.

Nous vous attendons nombreux, professionnels ou particuliers, toujours dans la bonne humeur des Vieux Machins, buvette et repas assuré. Renseignements : 06.10.82.74.19 ou 06.13.89.53.78

Si vous voulez rejoindre notre association, il faut réunir deux conditions : être d'humeur joyeuse et posséder un véhicule ancien ! A très bientôt, L'équipe des Vieux Machins



Bortxazko geldialdiaren ondotik, Vieux Machins elkarte lotu da berritz lanari, eta bost iluntzetako merkatu antolatu ditu 2021eko uda betean, ustegabeko arrakasta ukan dutenak. Itsasuarrak agertu dira gaualdi horietarat, bozkario eta elkarbizitza partekatzenko.

Herriko bestentzat, agertu ditugu betiko katxarro zaharrak, eta hurbildu zaizkigu Hazparneko « auto-moto-rétro » elkartekoak.

Urriaren 17an, ohizko ibilaldia ospatu dugu gure bidetan barna, apairu batez bururatuz egunaldia. Biper bestarako, beste behin eskatu daukute laguntza ikusliar garraiatzeko Kanbotik eta itzuliko beste akanpalekuegarik. Atharriko ezker paretan antolatzen dugu azaroaren 14an gure Brikabraka.

Ofizioako ala afiziodunak, aintz hurbilduko zireztela espero dugu, beti Vieux Machins elkartearen trenpu airosean, edateko eta jateko izanen delarik. Xehetasunak : 06 10 82 74 19 edo 06 13 89 53 78

Gure elkartean sartu nahi baduzue, bi baldintza bete behar dira : gogo alaioa izan eta katxarro zahar bat ukan. Laster arte. Vieux Machins taldea.

Errobiko : le bonheur des rencontres et des spectacles

Errobiko Festibala 2021 a célébré les 25 ans du festival sur Itsasu, en troisième semaine du mois de juillet. Pendant trois jours, Atharri a résonné des musiques et chants du Pays Basque et du monde, avec un public impatient de partager les prouesses et les improvisations des artistes.

« ... les artistes et le public nous ont remerciés d'avoir maintenu ce festival 2021, dans le contexte sanitaire que nous subissons, et les difficultés d'organisation que cela engendre. Les arts et le lien social sont trop précieux dans nos vies... mais il est certain que nombreux sont ceux et celles qui ne sont pas venus au festival, à cause de la Covid 19 ou du « passe sanitaire ». Du moment que ces règles ont été imposées, notre objectif a été de « sauver » le festival.... »



Benat : « hunkigarri biziki niretzat aurtengoa. Intentsiboki bizi izan dut. Gaztek hartu dute nikuste bete betean beren lekua festibal hunen kudeatzen, mundu guziko artistekin lokarriak hazten, Euskal Herriko kulturalan sustraituak geldituz. Publikoak ere badu sekulako eragina gure ekitaldietan, energia publikoaren ganik biltzen dute artistek, bapateko sorkuntzak edo inprobisazioak garrantzizko lekua baitu Errobikoan. »

Julen : « Hunkigarria enetzat ere, segurki! Festibal horrekin haunditu niz, arbasoak (amatxi) etxetiar ukan ditudan herrian... eta aurtengoa lehena izan da Maite Achiary Etchemendy ama gabe eta festibalaren sortzaile izan zena gabe. Indar berezia ukan du aurtengoak beraz... lekukoaren hartze eta ospakizun haundia, kontextu berezian. Animaleko indarra eman dut festibala aintzin eta bertan ere, eta dena izigarri fite pasatu da, usaian baino gehio ere! Bainan beti bezala plazerra hartu dut, jendeekin harremanetan eta topaketan, eta ikusgarrien gozatzen! »

mugialdi

Après Paris ... en Pays basque ...

Organisation de stage de danse des 5 rythmes / intervention d'enseignants certifiés.

Kundalini Yoga : Pour qui et pourquoi ?

En sanscrit, Yoga signifie " union, lien" et kundalini " éveil des forces de Vie".

Ainsi le kundalini Yoga forme dynamique de yoga, vise à éveiller l'Énergie et la Conscience de Soi, par la pratique :

- d'asanas (postures statiques ou dynamiques)
- de pranayama (techniques respiratoires)
- de récitation de mantras / SON en sanscrit (langues des textes religieux hindoux)
- de relaxation et de méditations

Le Kundalini s'adresse à tou(te)s et chacun(e) avance à son rythme ("on" peut démarrer en cours d'année sans problème). Vous apprendrez à renforcer en profondeur, votre système nerveux et à harmoniser les autres systèmes du corps

Se munir d'un tapis de sol, d'un coussin et d'une couverture pour la relaxation. Une tenue souple, blanche de préférence suffit. N'oubliez pas votre bouteille d'eau.

ACCESSIBLE à TOUS - Un moment pour se poser, respirer, se détendre, se ressourcer

Formée à la Fédération de Tantra Kundalini Yoga (FTKY) passionnée par LE Vivant, j'ai enrichi mon parcours professionnel initial d'éducatrice, de diverses approches, danses multiples, africaine, buto, des 5 rythmes, Reiki, constellations familiales, soins quantiques qui nourrissent ma transmission de ce Yoga de l'Énergie et de LA Conscience.

Le MARDI à Ustaritz
espace CARPE DIEM
quartier Arrautz - 19h / 20h15.

Le JEUDI à Itxassou
espace privé 10h / 11h15.

Ateliers mensuels de danse LIBRE !
et méditative à
l' Espace CARPE DIEM Arrautz.

Kundalini Yoga : norentzat eta zertarako ?

Denei egokia. Gelditzeko une bat, hats hartzeko, lasaitzeko, bizkortzeko.

Sanskrito hizkuntzan, « yoga » hitzak erran nahi du « lokarri, bateratze », eta « kundalini » aldiz bada « biziaren indarren iratzarle »

Hots, kundalini yoga atzartzeko yoga modu dinamikoa da. Energia eta nor beraren kontzientzia, honelako pausoak erabiliz :

- Asanasak (jarrera estatikoak ala dinamikoak)
- Pranayama (arnas teknika)
- Mantra erreztatze/ Soinua sanskritoz (indio erlijionearen irakurgaien hizkuntza)
- Lasaitzeak eta meditatzeak

Kundalini denei idekia da, bakotxaren urratsari egokitzen da (urte erditan abia daiteke arazorik gabe)

Ikasiko duzue sakonetik indartzen zuhauren zain sare baita gorputzeko beste sareen orekatzen.

Lasaitzeko ekitaldientzat, eraman behar da kirol tapiza bat, buhurdiko bat eta estalgi bat. Hobe jauntzi malguak eta ahalaz xuriak. Ahantzi gabe ur botoila.

Denei egokia. Gelditzeko une bat, hats hartzeko, lasaitzeko, bizkortzeko.

Ene hezitzaile formakuntza osatu dut Kanda Kundalini Yoga Federazioneko (FTKY) formakuntzarekin, Biziaren zaintzale suharra izanki. Bestelako bideak ere jorratu ditut : dantza molde ezberdinek, afrikakoek, butok, bost ritmakoek, Reikik, familien izar zelaiek, arta kantikoek hazten dute Yoga horren transmititzeko Energia eta Konzientzia.



Infos / Contact

Claire Seugnet 06 24 82 02 32

école publique / eskola publikoa

L'école publique compte 3 classes (4 classes sur le temps unilingue / bilingue basque car un demi-poste basque a été créé l'an dernier). Les effectifs par classe sont bas, ce qui offre de très bonnes conditions de travail pour les élèves ainsi que pour les enseignants !

Cette année, le projet de l'école est centré sur les ressources locales, et plus précisément sur l'alimentation. Le choix est vaste car Itxassou propose une multitude de ressources naturelles.

Nous avons donc pris contact avec des associations locales et avec des agriculteurs locaux. Ainsi, les élèves se rendront sur 3 fermes d'Itxassou et chez un apiculteur, M. Patrick VAISSE. Nous remercions bien sûr toutes ces personnes pour leur disponibilité et le temps qu'ils offriront aux enfants de notre école !

Nous travaillerons également avec l'association Sarde Sardexka, l'Association de pêche et de protection des milieux aquatiques de la Nive (activité sur la pêche) et peut-être avec le CPIE Pays Basque (sur le thème de la Nive). Toutes ces activités permettront d'offrir aux élèves un éventail détaillé des richesses de leur village !

Plusieurs projets sont également menés avec les deux autres écoles d'Itxassou : Arimen gaua, Olentzero, Ihauteriak... Tous les élèves des classes élémentaires participent ainsi à un projet de création de danse traditionnelle avec une danseuse professionnelle de la Fédération de danse basque. Arimen gaua aura lieu le dimanche 31 octobre 2021 dans les rues d'Itxassou.

Avec ou sans masques, les élèves de l'école publique continuent de s'investir et de s'épanouir ! L'équipe enseignante les en félicite!



Eskola publikoak 3,5 ikastalde ditu (postu erdi bat sortu baita joan den urtean). Ikasle kopuruak apalak dira eta horrek eskaintzen ditu baldintza biziki onak ikasleentzat baita irakasleentzat ere!

Aurten, eskolako proiektua tokiko baliabideetan oinarritzen da, eta zehazkiago elikaduran. Gaia zabala da Itsasuko dituen natur baliabide anitzengatik. Harremanetan sartu gira tokiko elkarteekin eta tokiko laborariekin. Honen harira, ikasleek Itsasuko 3 baserri bisitatuko dituzte eta Patrick VAISSE erlezainaren kofainak ere deskubritzera joanen dira.

Bistan da, pertsona guzi hauek eskertzen ditugu gure eskolako haurrentzat eskainiko dituzten prestutasun eta denboragatik! Horrez gain, lan eginen dugu Sarde Sardexka elkartearekin, Errobiko arrantza eta ur eremuen zaintzan ari den elkartearekin (arrantza) eta Euskal Herriko Ingurumenaren aldeko Ekimen Zentro Iraunkorarekin (Errobi errekararen gaiaren inguruan). Jarduera guzi horiek ikasleei ahalbidetuko diete beren herriko ontasunak xeheki ezagutzeko!

Lehen mailako ikasle guziak parte hartzen ari dira euskal dantza proiektu batean Iparraldeko Dantzarien Biltzarrako dantzari profesional batekin. Arimen gaua 2021eko urriaren 31n igandearrekin iraganen da Itsasuko karraketan.

Musukoekin edo gabe, eskola publikoko hurrek parte hartzen eta loratzen segitzen dute! Irakasleek zoriontzen dituzte!

Arrokagarai ikastola



Iraileko 2.asteen Covid ak ere euskara ikasteko gogoa baitzuen, gurekin batera ikastolara sartu zen. Eritasunari, bizia eta irria nahiago baitugu ikastola hetsi genion aste batez (Ikastola hetsia iralaren 13tik 21era) ! Covid a ikastolatik eta iparraldetik kanporatua dugula iduri luke urriaren 11tik goiti haurrek maskarik ez baitute gehiago behar ! Hau berri ona !

Eritasunari atek hesteak, bistan da !! Baina dakizuen bezala gure ikastola ttipiegia baita ondoko herritako ikasle berrieri ere hetsi behar izan dugu : joanden abendoan algeko bat ezarri genuen eta aurten eskola publikoko gela bat alokatzen dugu astean behin gure klaseak eta kanpoko eremua gaindezka baitira. Beraz luhuso, ezpeleta eta makeako haurrak, KANPORAT !!

Ikastolek eta imertsio sistemek, arrakasta ukaten segitzen dute, baina molac legea bozkatu bazen ere, kontseilu konstituzionalak ilegalak girela erran daukute ! Imertsio sistemak prekaritatean izaten segitzen du !!

Alta euskaraz bizitzeko gogoa dugunak geroz ta gehiago gira ! Agian Pariseko lege eta deliberazioen gainetik aterabide egonkorak atxemanen ditugula gure ikastoletan giro baketsu, baldintza eta egoitza onetan, nehere baztertu gabe ikasteko !!

Hala ere beharrik eskolen arteko elkartasuna hor dugula ! Milesker eskola publikoari beren atea idekirik eta Gora Arimen Gaua 3 eskolen artean haur pesta eder bat ber sortzen eta asmatzen ari baigira !!

Gurea da geroa !!



Le covid nous a montré sa motivation à apprendre l'euskara en faisant irruption à l'ikastola en cette seconde semaine de septembre. Puisqu'à la maladie nous préférons la vie et le sourire, nous lui avons fermé les portes pendant une semaine (ikastola fermé du 13/09 au 21/09) !

Fermer les portes à la Covid bien sûr ! Mais les classes et la cour de récréation de l'ikastola étant pleines à craquer ; après avoir ajouté un algéco (décembre) et loué une classe à l'école publique, nous avons été dans l'obligation de fermer les portes de l'ikastola aux nouveaux élèves désireux d'apprendre en euskara des villages voisins ! DEHORS les enfants de Luhuso, Makea et Ezpeleta !

Le système immersif de l'ikastola continue à avoir du succès et même si la loi Molac a été votée, le conseil constitutionnel nous a déclarés anticonstitutionnels!!

Les ikastola et le système immersif restent précaires avec un avenir toujours aussi incertain !

Pourtant il semble que localement nous sommes de plus en plus à vouloir vivre en Euskara et on espère que malgré les lois et délibérations de Paris nous trouverons des solutions pour que l'enseignement de nos enfants se fasse dans un climat apaisé, dans des locaux adaptés afin de ne laisser personne sur le bord du chemin.

Heureusement que la coopération entre les trois écoles nous reconforte !

Merci à l'école publique de nous avoir ouvert une classe et Gora Arimen Gaua, la nouvelle fête pour enfants que nous recréons entre les 3 écoles !

L'avenir est à nous !



San Josep eskola - OGEC

Après trente ans passés à l'école Saint Joseph, dont douze à la direction de l'école, Xantal BLAIN a pris une retraite bien méritée.

Au cours de toutes ces années, elle a axé son travail sur le bien-être des enfants et leur développement. Les valeurs de citoyenneté, de bienveillance, de partage et de solidarité étaient au cœur du projet éducatif.



Grâce à sa motivation permanente et son dynamisme, de nombreux projets ont pu se concrétiser. Le dernier aboutira en juin 2021 à l'obtention du label Eco-Ecole qui récompense l'engagement et la mobilisation de l'école entière dans le développement durable.

Nous la remercions pour son investissement et lui souhaitons une belle retraite! Milesker Xantal !

Un nouvelle page s'ouvre avec l'arrivée d'**Yvonne ARROSSA ERRANDONEA**. Tout en apportant un regard neuf, elle saura mettre à profit son expérience, de 18 années passées à l'école Saint Étienne d'Espelette.

Nous lui souhaitons la bienvenue et savons d'ores et déjà que vont perdurer les valeurs de notre école ! Ongi etorri Yvonne !

N'oubliez pas nos rendez vous animés par toute l'équipe de l'association des parents d'élèves : le vide-poussette, le désormais traditionnel « marché aux plantes », concert, etc ... et suivez notre actualité sur la page facebook de l'école (Ecole Saint-Joseph) !



Hogoita hamar urte egonik San Josep eskolan, eta hauetarik hamabi zuzendari karguarekin, Xantal Blain-ek hartu du merezitua zuen erretreta.

Urte guzi horietan, haurren ongizatea eta garapena lehenetsi ditu Xantal-ek. Herritar izatea, onginahia, partekatzea eta elkartasunaren balioak ezarri ditu eskola proiektuaren ardatz.

Bere nahikeria higaezinari eta dinamismoari esker, egitasmo frango gauzatu ahal izan da.

Azkena 2021 ekainean agertu da Eco- Ecole labela eskuratzean, hunek saritatzeko baitu ikastetxe guziaren engaiamendua eta motibapena garapen iraunkorrean.

Eskertzen dugu eman duen guziarentzat eta opa diogu erretreta garai ederrena. Milesker Xantal !

Orri berria zabaltzen dugu Yvonne Arrosa Errandonea-ren heltzearekin.

Begirada berri bat ekarriko du, eta jakinen du bere esperientziaren baliatzen, 18 urte egonik Ezpeletako Doneztebe eskolan.

Ongi etorria zor diogu, eta badakigu jadanik gure ikastetxearen balioek iraunen dutela. Ongi Etorri Yvonne !

Ahantzi gabe atxik gogoan gure burraso elkarteko lagunek antolatzen dituzten ekitaldiak : haur karrosa hustea, ohizkoa bilakatu den landare merkatua, kontzertuak eta beste..... eta jarrai gure egunerokoa San Josep eskolaren facebook ean

les actions et initiatives du CCAS

enfance familles / haur eta familiak

cantine / jantegia

locaux

Le chantier d'extension de la cantine a été livré pour la rentrée de septembre avec une nouvelle salle de restauration très lumineuse, une cuisine agrandie et plus fonctionnelle et des vestiaires neufs pour le personnel.

Les quelques 140 élèves du primaire sont donc maintenant répartis dans deux salles : environ 87 dans la salle d'origine et 53 au sein de l'extension. Les enfants déjeunent à 6 maximum par table contre 8 les années précédentes et chacun dispose d'une place attitrée. Finis les chamailleries, les cris et autres bousculades ; place à la sérénité pour tous les acteurs.



jantegi berria

Obrak bururatu dira uda huntan, eta jantegi emendakin argia ukanen dute hurrek, sukalde parte erosoagoa langilek.

Lehen mailako 140 haurrak bi gunetan banatuak dira beraz engoitik : 57 hurrek janen dute orainarteko jantegi gelan eta 53 hurrek emendakin berri berrian. 6 haur izanen dira mahainka, 8ren orde, bakotxak bere lekua daukala.

Adios kalapitak, garrasiak eta bulkadak ; goxokiago haurrentzat eta langileentzat.



tarifs

La commune d'ITXASSOU a instauré une aide financière allouée en fonction du Quotient Familial (QF) à destination des élèves scolarisés à ITXASSOU et dont le foyer du représentant légal se situe sur ITXASSOU.

La tarification applicable pour l'année scolaire 2021/2022 est fixée de la manière suivante :
 QF ≤ 500 € : aide de 2,00 € / repas / élève ;
 QF > 500 € et ≤ 850 € : aide de 1,50 € / repas / élève.

Pour le mois de septembre cette mesure a concerné un total de 22 familles.

bazkari sariak

Itsasuko herriko etxeak laguntza berezi bat deliberatu du eskolako jantegiko bazkariak ordaintzea arintzeko irabazi apalenak dituzten familiei.

500€ tik azpiko kozientea duten familiek 2€ko laguntza bazkarikal.

500€ eta 850€ artean diren familiei, 1.50€ko laguntza.

22 familiek eskuratuko dute laguntza hori 2021ko irailekotz.

enfance jeunesse / haur eta gazteria

conseil des enfants / haurren kontseilua

Dans la continuité de la réunion d'installation du conseil des enfants en mars 2021, il a été décidé de tester la mise en oeuvre d'actions concrètes au sein de la cantine durant le mois de juin. Elles ont porté sur la nomination de deux responsables de table par semaine : l'un chargé de la répartition des plats, l'autre de la gestion du bruit.

Un bilan des ces actions a été dressé le 28 juin 2021 lors d'un second conseil des enfants qui a également permis d'envisager des perspectives pour la rentrée 2021.

Les élu.e.s reviendront prochainement vers les écoles et les enfants pour continuer à travailler sur le sujet.

Joan den ikasturtean abiatu zen haurren kontseiluaren haritik, 2021eko martxoko bilkuratik, ekintza bereziak espraubi ziren jantegian joan den ekainekotz. Deliberatu zen mahain bakotz izanen zirela bi arduradun : bata janariaren banatze xuxena bermatzeko eta bestea arrabotsa jabaltzeko. 2021eko ekainaren 28an bildu zen berriz haurren kontseilua, egin urratsen bilana egiteko eta ikasturte berriaren apailatzeko.

Hautetsiak itzuliko dira berriz haurrei eta eskola arduradunei buruz abiatu lanari segida emateko.

pour les séniors adinetakoentzat

activités séniors

Le Centre de ressources Arditeya-Vieil Assantza de Cambo-les-Bains propose aux personnes de plus de 60 ans, des activités et des ateliers adaptés.

Contactez Mme DUSSARRAT au 05-59-29-39-70

Comme chaque année, **les colis de Noël** seront distribués à nos aînés de plus de 80 ans à leur domicile ou dans les EHPAD.

mobilité

Le CCAS étudie différentes possibilités pour relier les Itsasuar aux arrêts de la navette « Txik Txak » (Itxassou-Cambo) ou les accompagner pour des rendez-vous médicaux.

**A la suite de l'enquête sur la mobilité,
le CCAS est à la recherche de chauffeurs
bénévoles.**

+ d'infos auprès de la Mairie d'Itxassou

05 59 29 75 36

population@itxassou.fr

activités de loisirs / aisialdi aktibitateak

En parallèle de l'ouverture d'Uda Leku, centre de loisirs pour les 3-11 ans, le CCAS organise ponctuellement des journées d'activités à destination des 12-15 ans. Le 6 août 2021, 16 jeunes de 12 à 15 ans ont navigué sur la Nive à bord d'embarcations "canoraft" ou "rafting" guidées par Gaël d'IBAYAK RAFTING.

Comme l'été indien peut aussi être l'occasion de se remettre à l'eau, **le CCAS organise une sortie similaire le mardi 26 octobre 2021 de 10h à 12h30** (renseignements en Mairie). A vos inscriptions !

3 eta 11 urteko haurrei ideki den Uda Leku aisialdiaren aldean, ALSHeK antolatzen ditu noizean behinka aisialdi egunaldiak 12-15 urtetako gaztetxoentzat ere. Agorriaren 6an adin horietako 16 gazte ibili dira canoraft eta rafting egiten Errobin Ibayak Rafting eko Gael ekin.

Itsasuko ALSHak antolatzen du modu berdineko egunaldia urriaren 26an goizeko 10tarik 12.30tarat. Eman izenak Herriko Etxean



budget**Politique sociale : Budget à la hausse
Sozial arloan : emendatzea urtetik urterat**

